



Abiapuntua: Salbide auzoa.

Trenbideko eta autopistako zubien azpitik pasatuta, abiatu gorantz errepidean zehar. Hilerria pasatu ondoren, bide asfaltatu bilakatzen da eta Ountzain baserri aurretik ondoan arte zoragarri bat (Quercus ilex) duen Balentzegi-aundi baserriaren aurritaraino iritsiko zara.

Bide-banaketa, eskuinaldeko pistari jarraituz, gorantz leunki.

Bide-banaketa berria, ezkerretara jo. Ibilbidea aurrera doa, Arbestain-aundi eta Arbestain–txiki (eskuinaldean) baserrien ondotik, San Blas ermitara heldu arte. Bertan, Aia, Getaria eta Zarautz arteko mugarria dago.

Eskuinetara jo. Ezkerreko bidea Urrezberoeta-aundi baserrira jaisten da eta aurrealdean duen armaria ikus daiteke.



Puntu honetatik Elkanora iristeko bi bide daude:

a.-Mugarriaren ezkerretik bide zaharrean sartu eta leunki gorantz Agote-txiki baserriraino.

b.-Eskuinetik, Meaga-Elkano errepidearekin lotzen duen pista jarraituz. Alkortega baserriaren eta Sta. Krutz ermitaren aurretik pasatuta, Elkano auzora iristen da.



Eliza aurreko plazatik metro batzuetan atzera egin, Meagarako norabidean, eta bide asfaltatuan sartu, Agote-txiki baserriraino (berrituta).

Maldan behera (ezkerraldean txalet bat geratzen da) Agote-aundi baserriraino jaitsi. Bertan, pista asfaltatua bukatu eta pista bati lotzen zaio, behearantz, Lertxundi baserriraino.

Pista asfaltatuari jarraitu eta, Sola baserria pasatuta, beti aldapan behera, zur-xukategi batera heltzen da. Makatzeta erreka ondoan. Pista asfaltatuan segi, erreka ondotik –ibaian behera–.

Bide-banaketa. Pista Urdanetatik jaisten den errepideari lotzen zaio. Ezkerretara jo, Abendaño baserri aurretik igaroz eta industrialdera sartu lehenengo errotondaraino (Urtetako biderekin elkartzu).

Ezkerretara jarritu, autopista azpitik pasatuta, Azken Portura heltzeko.



Abiapuntua: Zarauzko Azken portu auzoa

Abiatzeko, Urtetarako eta Urdanetarako errepidea hartu. Behin autopista azpitik pasatuta gero, ezkerretara jo. Eskuinaldekoak, La Salle ikastetxerako eta Urdanetarako errepideak dira.



“Ventas” izeneko auzora iristean, eskuinetara abiatzen den bide asfaltatutik igo, Santuru, Argoin-txiki eta Borda baserrien ondotik igaroz. Zertxobait gorago, aldapa txikian, ezkerraldean Udál-Zaborteja utzi. Pista asfaltatua ere lagata, Gorrixoaga baserriaren behealdera hurbiltzen den bide zabalean sartu. Pista utzi eta eskuinetara jo bidezidor batean zehar, aldapa bizian gora, Gorrotxiaga baserriko urtegira iristeko.

Ezkerretan eta behealdean Paskualsoro baserria dago. Eskuinaldean, berriz, Aramburu erreka-zuloa. Bidea pista bilakatzen da, Otzarreta baserriraino helduz.

Segi zuzen, Otzarretatik Urdanetara doan pista eskuinaldean utziz. Pinudi txiki bat pasa. Pinu tartean, orain urte gutxi arte inguru honetan nagusi zen pagadiaren ale bakarren batzuk ikus daitezke. Bukaeran eskuinetan Sarobe-berri baserria dago. Langa bat gainditu eta zelaia zeharkatu langa berri bateraino. Ezkerretan, haritz amerikar-basotxo bat eta honen ertzetan zenbait pago ageri dira; eta eskuinetan, muino txiki baten gainean, Sarobe berriko tumulua, haginez inguratutik. Metro batzuk eginda bide-banaketa batera heltzen da.

Ezkerretako bidezidorra hartu, mendi-hegaletik gorantz, pinu gorri (pinus sylvestris) eta Douglas izei (pseudotsuga menziesii) batzuen ondotik.

Burdinsare bat gaindituz, eskubitan eta behealdean, erreka-zuloan, Nevera baserriko aurriak geratzen dira. Bere inguruan bi elurtzulo daude. Aurrerago, bi burdinsare dituen “Lizarraundiko leporaino” jaitsi.

Lepo honetatik aurrera bidea sailaleztaturik dago. Segi zuzen eta gorantz, burdinsare ondotik. Bidezidorra zeharka eta gorantz doa larre artean, luraren orografiara moldatuz eta “Urrustume IV” tumulu ondotik pasatzen da . Langa bat gainditu.

Ezkerretan, Pagoetako iturrira daraman bidea eskuinaldean utziz, bidezidor seinaleztatuari jarraitu. Pago bakarren batzuk igarota, Pagoeta goialdeko zelaietara doa bidexka eta, aldapan gora, gurutzera heltzen da.

Itzulbidean, gurutzetik “Uruzume Aterpea” izeneko borda polit bateraino dohan bidexka hartu. Bordatik irten, metro batzuetan gora egin eta burdinsarea iragan.

Leku honetatik, beheako bidexka burdinsare ondotik doa bide zabal batera iritsi arte. Eskuinera biratu eta segidan ezkerraldera, burdinsare berri bat gainditu, zelaia zeharkatu eta iturri ondoan beste burdinsare bat gainditu.


Eskuinetara segi eta pista berri batera irten. Bertan eskuinera jarraitu. Aurrerago, burdinsarea igaro eta hasieran bidezidor lau batetik “Urrustume I, II, III” tumuluven artetik pasa eta Lizarraundiko leporaino jaitsi.

Burdinsare bikoitza zeharkatu eta gero, berriro gorantzko ibilbidea hartu Sarobe baserriraino.

Jarraitu pista zabalean barrena, Zarauztik iristen den bidea eskuinaldean utziz.

Bidegurutzean, ezkerretara sartu, malda bizian behera, Pagadi baserria pasa eta Urdanetara ailegatu arte.

Urdanetatik Zarautzera errepidez 6km. daude. Ibilbidean zehar Indagarate-berri, Indagarate-zar, Izeta eta Abendaño baserrien ondotik pasatzen da. Bidegurutzean, ezkerretara jo autopista azpitik Azken Portura ailegatzeko.



Abiapuntua: Zarauzko Parrokia.

Azpetirako errepidetik abiatu.

Eskuinetara jo, Zaharren Egoitzako hesi ondotik igotzen den bide asfaltatua hartuz. Metro gutxitara, asfaltoa utzi eta galtzadan sartu, aldapa bizian gora, Txakoli-mahastiak inguratuz.

Aldapa igota, berriro asfaltoa aurkitzean, eskuinaldeko bidetik igo, Santa Barbara ermitaraino. Bertatik Zarauzko bista eder eta paregabea ikus daiteke. Ermita inguruan gurbitzak hazten dira.

Itzuli bidegurutzearaino eta eskuinetara biratu, Allene baserri pareraino joanez.

Bide asfaltatuak ezkerretara biratzen du baserri horretara heltzeko. Eskuinetara jarraitu, galtzadan zehar. Eskuinaldera Garro baserria dago.



Galtzada amaitzean, errepide asfaltatu bat hasten da. Zuzen segi, Urkiola, Gaztaga-Txiki, eta Eitzaga baserrien aurretik eta “Txakolin Talai” begiratikitik igaroz.

Meagatik Getariara datorren errepidean sartzean, eskuinaldetik behearantz joan, Gurutzeaga baserriaren ondotik jaitsiz.



Bihurgune itxi batean, eskuinaldera biratu eta eskaileretatik behearantz, Getariako plazaraino iritsi.

Itzulbidea, itsasertzetik doan errepidean zehar paseatuz egiten da.



Alde zaharretik Iñurritza auzora joateko, kale nagusitik abiatu. Torre Luzea aurretik eta Gipuzkoa kalean barrena, San Pelaio ermitara iristen da.



Abiapuntua: Iñurritza auzoa.

Gasolindegia parean, errepide nagusia zeharkatu eta, Donostiarako norabidean, Zubiondo baserria pasa. Metro gutxitara, ezkerraldeko bidexka hartu –baratzte artean– Agerre-bekoa, Agerre-erdikoa eta Agerre-goikoa baserrien aurretik iraganez. Aldapa gora, ezkerraldera pinu-herrenkada bat utziz, errepide asfaltatura atera.



Ezkerretara jo, gorantz, Talaimendi Bodegetara iritsi arte.

Bidegurutzea. Bi aukera daude:

a) Eskuinaldeko bidetik, Berazadi-berri baserri aurretik pasatuta, 200en bat metrora Ibaietako San Martin ermitara ailegatzen da.



b) Ezkerraldekoak berriz, akanpalekutik aurrera, paralelo, Talaimendi-gainera darama. Bertatik bista zoragarria eskaintzen da. Bidezidor belartsu batetik jaitsiz kargaleku zaharra zegoen tokira eta Malla-arrira iristen da.

Diotenez, antzina, Talaimendiko muino borobiletik –talaiaren zimendarri estaliak besterik ez dira geratzen–, talaiarik seinaleak eginez arrain-sardak nondik nora zihoazen abisatzen zieten arrantzaleei.

Berriro bidegurutzean, bideari ekin hasierako norabidean, erdiko pistan barrena behearantz. Oribar-bazte baserri ondotik igaroz, Torretxo hondartzara heltzen da eta ibilaldia Oriko barraren ezkerreko kaimuturreraino luza daiteke.

Zarautzera itzultzeko, ibilbide bera atzera egin daiteke.

Bestela, Orioraino joan daiteke, hau da, Mendibeltzeko hegala inguratzen duen pistari jarraitu eta, autopista azpitik, San Paulo ermitara heldu, errepide nagusiarekin lotuz.



Abiapuntua: Azken Portu auzoa.

Abiatzeko, Urtetarako eta Urdanetarako errepidea hartu. Behin autopista azpitik pasatu eta gero, ezkerretara jo. Eskuinaldekoak, La Salle ikastetxerako eta Urdanetarako errepideak dira.

“Ventas” izeneko auzora iristean, ez joan eskuinaldetik eta zuzen segi.

Errota-berri baserri ondoko bide-banaketan, zuzen jarraitu, Olatxo-berritik gorantz Urtetaraino.



Urtetako bidegurutzean, goialdean eskuinaldean San Sebastian eliza dago, benetan ikusteko interesgarria. Ezkerretara jo Gurmendi baserri aldera. Baserri honen paretik pasatuta, bide asfaltatuari jarraitu, Isasti baserriraino.



Asfaltatu gabeko bide batek eskubira jarraitzen du. Metro gutxitara hiru bide banatzen dira: erdikotik jarraitu, langa bat gainditu eta errepidera irten, Exeberri baserriaren ondotik.



Bidegurutzera daraman errepidea utzi eta aurrera jarraitu Kortaburu baserriaren eta ur depositu baten ondotik doan zementuzko pista batetik igoz.

Aierdi baserria. Pista hori utzi eta eskuinetik jaisten dena hartu. Oiarre baserriaren ondotik pasa eta Udál Zaborteja iritsi, Pagoetako Ibilbidearekin bat egiteko.

Errepidetik jaitsi “Ventas” auzoraino eta abiapuntura itzuli.



Abiapuntua: Zarauzko Parrokia.

Azpetirako errepidetik abiatu. Eskuinetara jo, Zaharren Egoitzako hesi ondotik igotzen den bide asfaltatua hartuz. Metro gutxitan asfaltoa utzi eta galtzadan sartu, aldapa bizian gora, Allene eta Garro baserrien ondotik igaroz. Galtzada amaitzean, aurreratu metro batzuk errepidean.

Ezkerretara biratu. Zingireta baserriraino igo. Eskuinaldera jo, gorantz. Eraikuntza berriko txalet bat igarota, beti gailur-lerroan zehar, ibilbideari jarraitu Garate-gainean dagoen errepideara heldu arte. Gora iritsi baino lehen eskuinetan dagoen bide zabal bat hartu. Ezkerraldera segi, behearantz, Meagako bidegurutzearaino.

Errepidea zeharkatu eta Elkano auzo aldera jarraitu, gorantz leunki. Gora iritsi baino lehen eskuinaldean dagoen bide zabal batetik jarraitu.

Santa Krutz ermitaren ondoan, Hego Mendealderantz doan bidea hartu.

Bidegurutzean, Indamendiko gailurrera daraman bidetik igo. Goialdean Aia, Aizarnazabal eta Zestoa herrietako mugarria dago, baita gurutze handi bat eta mendiburu geodesiko bat ere.

Bidezidorak ezkerraldera jarraitzen du, burdinsare baten ondotik; eskuinaldera bide zabal bat utzi, borda bat inguratzen du eta Aierdi-muxiko leporaino jaisten da.

Zuzen igo (hego ekialdera) langa bat pasa arte, norabidea aldatu eta burdinsareari paraleloan jarraitu inguratu arte. Zuzen igo tontor-lerroari jarraiki, eta zenbait burdinsare gainditu ondoren, Illarratzoko (Txabarromendi) burdinazko gurutzearaino heldu.

Gailurretik Ipar-ekialderantz jaitsi eta metro gutxitara eskuinetara biratu. Langa bat zeharkatu eta bide zabal batean barrena, Zarauztik igotzen den errepidearekin lotzen duen bidegurutzera iritsi. Errepidean sartu eta eskuinaldetik behearantz, Urdanetaraino joan.

Hilerrien ezkeral-detik gorantz doan pistari jarraitu, Pagadi-berri baserriraino. Zuzen segi.

Aldapa igota, zelaigune batean, bidegurutze bat dago. Eskuinetara jo. Sarobe-berri baserrira iristean, pista amaitzen da.

